SUSTRAIETATIK FRUITUETARA

TOLOSA



# 2023 2027

# AGINTALDI PLANA

## PLAN DE GESTIÓN

TOLOSA

# 2023 2027

# AGINTALDI PLANA

## PLAN DE GESTIÓN

TOLOSA



# AURKIBIDEA


**AGURRA**
Saludo 04 orr.

**AURKEZPENA**
Presentación 06 orr.

**AGINTALDI PLANA**
Plan de Gestión 08 orr.

**SUSTRAIAK**
Raíces 12 orr.

**ENBORRA**
Tronco 22 orr.

**FRUITUAK**
Frutos 34 orr.

# Tolosar agurgarria,

2023-2027 agintaldirako udal gobernuko kideok ditugun asmoak eta hartutako konpromisoak jasotzen ditu dokumentu honek.

Udalaren eguneroko jardunaren lerro nagusietan banatu ditugu, baina era berean, Plan hau irekia eta malgua ere bada, erronka berrietara zabalik dagoena.

Herri bizigarri eta jasangarri bat irudikatzen dugu etorkizunerako. Eta, guztion artean, elkarrekin, egin nahiko genuke: parte hartuz, hitz eginez, entzunez, eraginez.

Bide horretan topo egingo dugulakoan, adeitasunez,



Este documento recoge los objetivos y compromisos adquiridos por el gobierno municipal para el mandato 2023-2027.

Se han dividido en varias líneas de actuación que marcarán la actividad diaria del ayuntamiento, pero el Plan es, también, abierto y flexible de cara a futuros retos.

Imaginamos una Tolosa habitable y sostenible para el futuro. Y nos gustaría hacerlo en comunidad.

Espero poder encontrarnos en ese camino.

**Andu Martinez de Rituerto**

Tolosako alkatea



# SUSTRAIETATIK FRUITUETARA

Zuhaitz batek, fruituak eman ditzan, behar-beharrezko ditu ondo errotutako sustraiak, enbor indartsu bat, eta fruituak loratzeko bide emango duten adarrak.

Gisa horretara irudikatzen dugu udal jarduna datozen lau urteotarako: alde batetik, herritarrak eta herriko eragileak saretuz eta haien parte hartzea sustatuz landu nahi baita gure herriaren egunerokoa; komunitatean, alegia.

Oinarri horren ondotik, administrazio sendo eta moderno bat behar dugu, erronka guztien aurrean, landu beharreko politika, proiektu eta egitasmoei bide emateko.

Eta, azkenik, udalaren adar guztietatik egingo diren lanketen emaitza izango diren fruituak. Askotarikoak izan daitezke, baina gure indar eta ahalegin guztiak egingo ditugu, fruitu horiek lagundu dezaten zerbitzu publikoak indartzen eta tolosar guztion bizi baldintzak duintzen.

Uzta oparoa izan dadin, guztion parte hartzea ezinbesteko izango da ordea, edozein dela ere adin, jatorri, genero edota ideologia. Ea guztion artean zuhaitz ugariko baso eder bat osatzeko gai garen. Hori da gure desioa. Eta horretarako egingo dugu lan.

Un árbol, para que dé sus frutos, necesita unas raíces bien arraigadas, un potente tronco donde sustentarse, y unas ramas que permitan florecer sus frutos.

De esta manera representamos la actividad municipal para los próximos cuatro años: por un lado, queremos trabajar el día a día de nuestro pueblo en comunidad, a través de tejer una red, con la integración y participación de la ciudadanía y de los/as agentes locales.

Tras esta base, necesitamos una administración sólida y moderna para dar cauce a las políticas, proyectos e iniciativas a abordar ante todos los retos.

Y, por último, los frutos, que serán fruto de los trabajos que se llevarán a cabo desde todas las áreas municipales. Pueden ser variados, pero volcaremos todas nuestras fuerzas y esfuerzos para que estos frutos contribuyan a reforzar los servicios públicos y dignificar las condiciones de vida de todos/as los/las tolosarras.

Para que la cosecha sea abundante, será imprescindible la participación de todos y todas, independientemente de su edad, origen, género o ideología. Esperemos que, de forma comunitaria, seamos capaces de formar un hermoso bosque con abundantes árboles. Ese es nuestro deseo. Y trabajaremos para ello.



# 2023-2027 AGINTALDI PLANA

Hauteskundeetan aurkeztu eta herritarren partaidetzarekin osatutako Herri Programa da plan honen oinarria, baina ez bakarra: «Tolosako Plangintza Partekatua 2017-2027» eta «Tolosako Herritarren Batzarra, 22-23ko Gomendioak» dokumentuak ere uztartu ditugu. Eta, noski, udal teknikarien laguntza ere jaso dugu, aurreko dokumentuetan jasotakoa martxan dauden proiektuekin egokitzeko, eta haien esperientzia eta ezagutzarekin aberasteko.

Lerro nagusi horiek urtez urteko planetan izango dute garapen zehatzagoa. Alor bakoitzak bere helburuak eta ekintzak zehaztuko ditu eta ezarriko diren adierazleekin urteko balantzea egin ahal izango dugu.

# PLAN DE GESTIÓN 2023-2027

La base de este plan es el Herri Programa presentado a las elecciones y elaborado de forma participativa, pero no es el único: también se ha compaginado con los documentos «Plan Compartido de Tolosa 2017-2027» y «Asamblea Ciudadana de Tolosa, Recomendaciones 22-23», elaborados ambos por el ayuntamiento. Y, por supuesto, se ha contado con la colaboración de técnicos/as municipales para adecuar lo recogido en documentos anteriores a los proyectos actualmente en marcha, y enriquecerlos con su experiencia y conocimiento.

Estas líneas generales tendrán un desarrollo más detallado en los planes anuales. Cada área definirá sus objetivos y acciones, y con los indicadores que se establezcan podremos hacer un balance anual.


FRUITUAK
ENBORRA
SUSTRAIAK
Zaintza eredua aldatu
Tolosa berdinzaleagoa
Bizigune atseginak sortu
Aparkalekuen soluzio integrala
Etxebizitza eredu berria
Energia plan estrategikoa
Tolosa garbiagoa
Elikadura Mahaia
Turismo jasangarria
Memoria eta aitortza
Merkataritza indartuz
Alde Zaharra biziberritzea
Kirol proiektu pedagogikoa
Kulturguneen antolaketa
Euskararen herri-ituna
Inklusiorako babes egitura soziala
Hezkuntza bateratua
Mugikortasun Plana
Bertakoaren kontsumo eredua
Apatta 2
Ospitale publikorantz
Administrazioaren modernizazioa
Lan harremanak
Gertuko Udaltzaingo komunitarioa
Zerbitzuak erraztu
Gardentasuna eta informazioa
Gobernantza kooperatiboa
Auzoen Mahaia
Herri Behatokia
Eragile soziokulturalak



# SUSTRAIAK
## RAÍCES

**Herritarrak saretu eta parte hartzea sustatu**

**Creando comunidad y reforzando la participación**

Sustraiak 01

# GOBERNANTZA KOOPERATIBOA ARDATZ

Administrazioa eta herritarrak bilduko dituzten erabakiguneak sortu nahi ditugu (zaintza, energia, elikadura, kultura…), herriaren etorkizuna komunitatean eraikitzeko, eta erabakitzeko gaitasuna banatzeko. Prozesua herritarrak ahaldunduz eta komunitatea josiz egin nahi dugu. Halaber, jarraipena emango diegu landu diren egitasmoei, hobekuntzak txertatuz: Tolosatzen eskola irekia, Herritarren Batzarra, Aurrekontu parte hartzaileak eta Haurren Hiria.



Raíces 01

## LA GOBERNANZA COOPERATIVA COMO EJE

Se crearán foros con capacidad de decisión (ámbitos de cuidado, energía, alimentación o cultura) que integren a la administración y a la ciudadanía, para construir y decidir el futuro de nuestro municipio en comunidad. El proceso se pretende llevar a cabo empoderando a la ciudadanía, y tejiendo una amplia red comunitaria. Asimismo, se dará continuidad, con sus respectivas mejoras, a los proyectos que se han trabajado, como la Escuela Abierta Tolosatzen, la Asamblea Ciudadana, los Presupuestos Participativos o Haurren Hiria.

Sustraiak 02

# AUZOAK BATUZ, HERRIA HELBURU

Auzo elkarteekin eta auzotarrekin komunikazio zuzena indartu nahi dugu, haien parte hartzea sustatuz. Auzo Ordezkarien Mahaia sortuko dugu, haien eskaerak jasotzeko eta Udalak egindakoaren berri emateko. Auzotarrek adierazitako premiak eztabaidatu, lehentasunak finkatu, eta elkarrekin erabakiak hartuko ditugu. Landa auzoen kasuan, haien izaerari eusteko ikuspegiarekin egingo dugu lan.



Raíces 02

# LA UNIDAD ENTRE BARRIOS, COMO MOTOR PARA EL PUEBLO

Se reforzará la comunicación directa con las asociaciones vecinales, fomentando su participación. Se creará una Mesa de Representantes Vecinales para recoger sus peticiones, y dar cuenta de lo realizado por el Ayuntamiento. Se debatirán las necesidades de los barrios, se fijarán prioridades, y se tomarán decisiones de forma conjunta. En el caso de los barrios rurales, se trabajará desde la perspectiva de mantener su carácter.

# HERRI BEHATOKIA, ARDURAK EBALUATZEKO

Herritarren ahotsa politika publikoetara gerturatzeko, ausaz hautatutako herritarrez osatutako Herri Behatokia jarriko dugu martxan. Politika publikoak bultzatzeko helburuarekin, Gobernu Planaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu taldeak.









# UN OBSERVATORIO MUNICIPAL PARA EVALUAR RESPONSABILIDADES

Para acercar la voz de la ciudadanía a las políticas públicas, se pondrá en marcha un Observatorio Municipal formado por ciudadanos y ciudadanas elegidas al azar. Con el objetivo de impulsar dichas políticas públicas, el grupo realizará el seguimiento y evaluación del Plan de Gobierno.

Sustraiak 04

# HERRIKO ERAGILEEN SAREA INDARTU ETA BABESTU

Tolosak duen dinamismoaren arduradun nagusiak diren herriko eragile, elkarte eta taldeen sarea indartzeko eta babesteko neurriak hartuko ditugu. Udalaren eta eragileen arteko harremanak sakontzen saiatuko gara, baita eragileen arteko kohesioa ere, premien eta etorkizuneko desafioen aurrean elkarrekin lan egiten jarraitzeko aukerak aztertuz.



Raíces 04

# FORTALECIENDO Y PROTEGIENDO LA RED DE AGENTES SOCIOCULTURALES LOCALES

Se tomarán medidas para reforzar y proteger el tejido de agentes, asociaciones y colectivos de la localidad, ya que son los máximos responsables del dinamismo que tiene Tolosa. Se profundizará en las relaciones entre Ayuntamiento y la red de agentes socioculturales, así como en la cohesión entre dichos agentes, analizando las posibilidades de seguir trabajando conjuntamente ante las necesidades y los desafíos del futuro.

# ENBORRA
## TRONCO

**Administrazio sendo eta moderno bat**

Una administración fuerte y moderna

Enborra 01

# KALITATEZKO ADMINISTRAZIO MODERNOA

Lan harremanak zainduz eta indartuz, barne funtzionamenduan arintasuna sustatu nahi dugu, udal jarduna efizienteagoa izan dadin. Horretarako, sailak indartuko ditugu, behar diren baliabideekin: bai teknikoak, bai teknologikoak, baita, ahal den neurrian, pertsonalari dagozkionak ere.



Tronco 01

# DESARROLLANDO UNA ADMINISTRACIÓN MODERNA DE CALIDAD

Se buscará agilizar el funcionamiento interno para hacer más eficiente la actuación municipal, teniendo como premisa indispensable el cuidado y el fortalecimiento de las relaciones laborales. Para ello, se reforzarán los departamentos con los recursos necesarios, tanto técnicos como tecnológicos y, en la medida de lo posible, los relativos al personal.

Enborra 02

# ELKARLANA, KOORDINAZIOA ETA ZAINTZA, LAN HARREMANETARAKO GILTZA

Lan harremanetan ikuspegi aldaketa aplikatuko dugu. Udal langileek, rol eta funtzioak ez ezik, beharrak ere badituzte. Entzute aktiboa egingo dugu, dauzkaten kezkei erantzun egokia emateko eta beharrak asetzeko saiakera egiteko. Langileen parte hartzea sustatu nahi dugu, eguneroko jardunean elkarlana, zeharkakotasuna eta koordinazioa indartzeko. Langileen zaintza eta garapena bermatzeko lan egingo dugu.



Tronco 02

# COLABORACIÓN, COORDINACIÓN Y CUIDADOS, CLAVES EN LAS RELACIONES LABORALES

Se aplicará un cambio de enfoque en las relaciones laborales. El personal municipal no sólo tiene roles y funciones, también necesidades. Se realizará una escucha activa para dar una respuesta adecuada a sus inquietudes, e intentar satisfacer sus necesidades. Se pretende fomentar la participación del personal para reforzar la colaboración, transversalidad y coordinación en la actividad diaria. Se trabajará para garantizar los cuidados y el desarrollo del personal.

Enborra 03

# GERTUKO UDALTZAINGO KOMUNITARIOAREN EREDU BERRIA

Udaltzaingoaren antolamendua herriaren eta herritarren beharretara egokituko dugu, zerbitzu integralago eta hurbilago bat eman ahal izateko. Horretarako, baliabide berriz hornituko dugu: ibilgailu, jantzi eta koordinaziorako behar diren teknologiak eskuratuz. Barne arautegia txertatuko dugu, udaltzainen profesionalizazioa bermatzeko. Trafiko eta mugikortasun arauak eta gainerako ordenantzak betearazteko lan egingo dugu. Era berean, indarkeria matxistaren aurkako lanean eragile bat gehiago izango da Udaltzaingoa.




Tronco 03

## NUEVO MODELO PARA UNA UDALTZAINGOA COMUNITARIA Y DE PROXIMIDAD

La organización de la Policía Municipal se adecuará a las necesidades del pueblo y de la ciudadanía, para poder prestar un servicio más integral y cercano. Para ello se dotará de nuevos recursos, –tecnologías necesarias para la coordinación, vestimenta y vehículos–. Se incorporará un reglamento interno que garantice la profesionalización de agentes. También se trabajará en el cumplimiento de las normas de tráfico y movilidad y demás ordenanzas. Asimismo, la Policía Municipal será un agente más en el trabajo contra la violencia machista.

Enborra 04

# HERRITARENTZAKO ZERBITZUAK ERRAZAGO

Udalarekin harreman digitalak errazago izateko neurriak hartuko ditugu. Era berean, zerbitzuen katalogoa eguneratuko dugu, herritarrek jakin dezaten zer udal zerbitzu eta baliabide dituzten eskura. Ordenantzak egokitu, eta modu argigarrian sozializatuko ditugu.




Tronco 04

## FACILITANDO LOS SERVICIOS A LA CIUDADANÍA

Se adoptarán medidas para facilitar el contacto digital con el Ayuntamiento. Asimismo, se actualizará el catálogo de servicios para que la ciudadanía conozca los servicios y recursos municipales que tiene a su disposición. Se actualizarán las ordenanzas municipales, y después se socializarán de forma clarificadora y atractiva.

Enborra 05

# GARDENTASUNA ETA INFORMAZIOA HOBETU

Aurreko puntuarekin estu lotuta, udalaren web ataria eguneratuko dugu, zerbitzuetan zentratzeko, eta irisgarritasun eta gardentasun irizpideetara egokituta. Informazioa era argiagoan jaso ahal izateko moduak jorratuko ditugu udalaren gainerako kanaletan.




Tronco 05

# MEJORANDO LA TRANSPARENCIA Y LA INFORMACIÓN

En estrecha conexión con el punto anterior, se actualizará la web municipal, centrándose en los servicios, y adaptándose a los criterios de accesibilidad y transparencia. En el resto de canales municipales se trabajarán las formas de recibir la información de forma más clara y directa.



# FRUITUAK
## FRUTOS

Udal Sailetako
lanketen emaitzak

Resultados de los trabajos
de las áreas municipales

Fruituak 01

# ZAINTZA EREDUA ALDATZEKO BIDEAN AURRERA

Herritarren bizi proiektuetan hausturarik eragingo ez duen zaintza eredua helburu, zaintzaren inguruko diagnostikoa egingo dugu. Horrekin batera, Zaintza Mahaia eratuko dugu, eta zaintza lanak egiten dituztenak zaintzeko eta jarduera duintzeko egitasmoak landuko ditugu.







Frutos 01

## DANDO PASOS PARA CAMBIAR EL MODELO DE CUIDADOS

Se realizará un diagnóstico sobre el cuidado, con la perspectiva de lograr un modelo de cuidados que no suponga ruptura alguna en los proyectos de vida de la ciudadanía. Asimismo, se constituirá una Mesa de Cuidados y se elaborarán proyectos para el cuidado de las personas que realizan labores de cuidado y la dignificación de su actividad.

# TOLOSA BERDINZALEAGO BATEN ALDE

Sexu-generoagatiko desberdinkeria gainditzeko eta emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko estrategiak garatuko ditugu, sentsibilizazio jarduerekin. Andragora ,Tolosaldeko Emakumeen Etxea indartuko dugu, Mugimendu Feministak eta emakumeen elkarteek herriko bizitza politikoan parte hartzea bultzatuz.










## POR UNA TOLOSA MÁS IGUALITARIA

Se desarrollarán estrategias para combatir la violencia contra las mujeres y para superar la desigualdad por razones de género, que se acompañarán con actividades de sensibilización. Se potenciará Andragora, la Casa de las Mujeres de Tolosaldea, impulsando la participación del Movimiento Feminista y de las asociaciones de mujeres en la vida política de la localidad.

# BIZIGUNE ATSEGIN ETA EROSOAK

Zumarditxikia oinezkoentzat eta aisialdirako berreskuratuko dugu, bere izaerari eutsita eta interbentzio arina eginda. San Esteban auzoaren aldaketa urbanistiko puntuala egingo dugu, auzoaren mantentze-lanak eta biziberritzea gauzatzearekin batera. Etorkizuneko Tolosa garatzeko sustatu beharreko hirigintza proiektuei buruzko hausnarketa egin, eta proiektu horien antolaketa landuko dugu, HAPOaren berrikuntza abiarazita. Era berean, espazio publikoetan eta eraikinetan mantentze-lanak egoki egiteari arreta jarriko diogu.









# CREANDO ESPACIOS AGRADABLES Y CÓMODOS

Se recuperará Zumarditxikia para su uso peatonal y lúdico, realizando una pequeña intervención, de tal forma que se mantenga su carácter. Se llevará a cabo una modificación urbanística puntual del barrio de San Esteban, promoviendo su mantenimiento y reforma. Se trabajará en la reflexión y organización sobre los proyectos urbanísticos a impulsar para el desarrollo del futuro Tolosa, iniciando la renovación del Plan de Ordenación Urbana. Asimismo, se prestará atención al buen mantenimiento de los espacios y edificios públicos.

Fruituak 04

# APARKALEKUEN GAIARI IRTENBIDE INTEGRALA

Aparkalekuen Diagnostiko Orokorra egingo dugu, zonalde bakoitzeko aparkaleku eta ibilgailu kopurua zehaztuz, eta arazo gehien dituzten guneak eta uneak identifikatuz. Diagnostikoaren emaitzetatik abiatuta, TAOa berrikusiko dugu, lurrazpiko aparkaleku hutsak identifikatuko ditugu, horiek alokatzeko aukerak aztertuko ditugu eta aparkaleku gehiago eskaintzeko aukerak ere aztertuko ditugu.



Frutos 04

# UNA SOLUCIÓN INTEGRAL AL PROBLEMA DE APARCAMIENTO

Se realizará un Diagnóstico General de Aparcamientos, determinando el número de plazas de aparcamiento y vehículos de cada zona, e identificando las zonas y momentos más problemáticos. A partir de los resultados, se revisará la OTA, se identificarán los aparcamientos subterráneos vacíos y se analizarán las posibilidades de alquilarlos, y se trabajarán las posibilidades de ofrecer más plazas de aparcamiento.

Fruituak 05

# ETXEBIZITZA EREDU BERRIA

Etxebizitzen parke publikoa handituko dugu, alokairuko etxebizitza sozialen eta etxebizitza dotazionalen eskaintza zabalduz. Amarotzeko sustapen berria egitearekin batera, auzoa errealitate berrira egokitzeko neurriak hartuko ditugu. Herrian hutsik dauden etxebizitzak alokairuan merkaturatzeko politikak indartuko ditugu.



Frutos 05

# UN NUEVO MODELO DE VIVIENDA

Se ampliará el parque público de viviendas, ampliando la oferta de viviendas sociales y dotacionales en alquiler. Con la realización de la nueva promoción de Amarotz, se adoptarán medidas para adaptar el barrio a la nueva realidad. Se reforzarán las políticas para comercializar en régimen de alquiler las viviendas vacías en la localidad.

# ENERGIA PLAN ESTRATEGIKO BAT

Energiaren gaian, antolaketa eredu berriak bultzatuko ditugu, energiaren ekoizpen lokala sustatuta, eta kontsumoa murrizteko neurriak hartuta. Tolosa Klima 2050 Plan estrategikoa garatuko dugu, eta euri jasa handien eraginez sor daitezkeen arriskuen eta hornikuntza sareen azterketa egingo ditugu.









# UN PLAN ESTRATÉGICO SOBRE ENERGÍA

Se impulsarán nuevos modelos de organización en materia energética, fomentando la producción local de energía, y tomando medidas para reducir el consumo. Se desarrollará el Plan Estratégico Tolosa Klima 2050 y se realizará un análisis de los riesgos y redes de abastecimiento que pueden derivarse de las fuertes lluvias.

Fruituak 07

# GUZTION INPLIKAZIOAREKIN, TOLOSA GARBIAGOA

Kontzientzia pizteko kanpainak egingo ditugu, herritarroi arduraz jokatzeko erraztasunak eta tresnak eskainiz. Hondakin gutxiago sortzea lehentasuna izanik, sailkapenen kudeaketa hobetzeko neurriak hartuko ditugu. Kale garbiketako arazoak identifikatuko ditugu eta hobetzeko proposamenak garatu. Pertsona eta animalien arteko bizikidetza orekatzeko lan egingo dugu, zakurrentzat gune berriak eta erosoak ere sustatuz.




Frutos 07

# UNA TOLOSA MÁS LIMPIA, CON LA IMPLICACIÓN DE TODAS Y TODOS

Se realizarán campañas de concienciación, facilitando y ofreciendo herramientas a la ciudadanía para actuar con responsabilidad. Siendo prioritario reducir la generación de residuos, se adoptarán medidas para mejorar la gestión clasificatoria. Se identificarán los problemas de limpieza viaria y se desarrollarán propuestas de mejora. Se trabajará para equilibrar la convivencia entre personas y animales.

# ALDE ZAHARREKO PLAN INTEGRALA, ETORKIZUNEKO BIDE ORRI BAT

Estrategia integral bat prestatuko dugu, Alde Zaharrak bizi duen egoera iraultzeko. Partaidetzan oinarrituta landuko dugu proiektua, auzotarrekin eta tolosarrekin batera. Faseka garatuko dugu, diagnostikoa, estrategia, lehentasunezko arloetako proiektuen garapena eta arnas luzeko esku hartzeak definituz. Etxebizitza, ondarea, elkarbizitza eta erabilera aniztasuna sustatuko ditu proiektuak.









## EL PLAN INTEGRAL DE LA PARTE VIEJA, UNA HOJA DE RUTA PARA EL FUTURO

Se configurará una estrategia integral para revertir la situación que vive la Parte Vieja. El proyecto se trabajará de forma participativa, junto a sus habitantes y demás tolosarras. Se desarrollará por fases: el diagnóstico previo, la estrategia, el desarrollo de proyectos en áreas prioritarias y definición de las intervenciones a largo plazo. El proyecto promoverá, entre otros, la vivienda, el patrimonio, la convivencia y la diversidad de usos.

Fruituak 09

# ALDE ZAHARRA BIZIBERRITZEA, EZINBESTEKO

Alde Zaharreko Plan Integralean oinarrituz, auzoa biziberritzeko esku hartzeak egingo ditugu. Rondilla kalea bizigarriago egin, eta oinezkoei protagonismo gehiago emateaz gain, apeaderoaren irisgarritasunari bultzada emango diogu. Gorriti plaza eta RC2 gunea berreskuratu eta duindu egingo ditugu. Auzoko irisgarritasuna eta argiteria hobetuko ditugu, eta eraikinak birgaitzeko dirulaguntzen ordenantza Alde Zaharrera egokituko dugu. Bertako jarduera ekonomikoa suspertzeko estrategiak ere garatuko ditugu.



Frutos 09

# LA REVITALIZACIÓN DE LA PARTE VIEJA, IMPRESCINDIBLE

En base al Plan Integral de la Parte Vieja, se realizarán intervenciones para revitalizar el barrio. Además de convertir la calle Rondilla más habitable y dar más protagonismo al/la peatón/a, se dará un impulso a la accesibilidad del apeadero. Se recuperará y dignificará la plaza Gorriti y la zona RC2. Se mejorará la accesibilidad y el alumbrado de la Parte Vieja y se adaptará la ordenanza de ayudas a la rehabilitación de edificios de la Parte Vieja. Asimismo, se desarrollarán estrategias de reactivación de la actividad económica local.

# KIROL PROIEKTU PEDAGOGIKO BAT TOLOSARENTZAT

Kiroldegiaren etorkizuneko kudeaketa eredua definitu, eta gainerako kirol instalazioen erabilera berraztertuko dugu, instalazio berriak sortzeko aukerak aztertzeko. Herriko kirol proiektu pedagogikoa garatuko dugu. Gizarte aktiboa lortu, jarduera fisikoa areagotu eta sedentarismoa murrizteko egitasmoak landuko ditugu; hala nola parkeetan eta herriko beste espazio batzuetan ariketa fisikoa egiteko azpiegiturak jartzea.









# UN PROYECTO DEPORTIVO PEDAGÓGICO PARA TOLOSA

Se definirá el futuro modelo de gestión del polideportivo y se revisará el uso del resto de instalaciones deportivas para analizar las posibilidades de crear nuevas instalaciones. Se desarrollará el proyecto pedagógico deportivo de la localidad. Se trabajarán proyectos para conseguir una sociedad activa, aumentar la actividad física y reducir el sedentarismo, como la instalación de infraestructuras para hacer ejercicio en parques y otros espacios de la localidad.

Fruituak 11

# KULTURGUNEAK ANTOLATUTA, KULTURGINTZA INDARTU

Eraikin publikoak -kultur etxea, Iturritza, liburutegi berria eta abar- berrantolatzeko prozesuari jarraipena emango diogu, kultur azpiegiturak erabiltzeko aukera berriak aztertzearekin batera. Kultur Bilgunearen sorrera sustatuko dugu, Tolosako diziplina anitzeko ekintzailetza kulturalari bide ematen jarraitzeko. Gazte, langabetu eta pentsiodunei kultur kontsumorako erraztasunak emango dizkiegu. Emakumeen sorkuntza lanak ikusarazteko bideak jarriko ditugu, halaber.



Frutos 11

## ORGANIZACIÓN DE CENTROS CULTURALES PARA POTENCIAR LA ACTIVIDAD CULTURAL

Se continuará con el proceso de reordenación de los edificios públicos -casa de cultura, Iturritza, nueva biblioteca- junto con el estudio de las nuevas posibilidades de uso de las infraestructuras culturales. Se promoverá la creación del Kultur Bilgunea para seguir dando sustento al emprendimiento cultural multidisciplinar de Tolosa. Se ofrecerán facilidades de consumo cultural a jóvenes, personas desempleadas y pensionistas. Asimismo, se establecerán cauces para visibilizar los trabajos creativos de mujeres.

Fruituak 12

# EUSKARAREN HERRI ITUNA ARDATZ

Euskara inklusio tresna gisara baliatuko dugu, etorri berriek euskara eta euskal kultura haienganatzeko estrategia landuz. Euskara ikasteko doakotasuna bultzatuko dugu, eta haur eta gazteen aisialdi eskaintza osoa euskaraz eskainiko dugu. Herritarrei administrazioarekin euskaraz aritzeko eskubidea bermatuko diegu. Hizkuntza estrategiak eskualde mailan garatzea bultzatuko dugu.




Frutos 12

## FOCALIZANDO EL PACTO POPULAR DEL EUSKERA

El euskera se utilizará como herramienta de inclusión, elaborando una estrategia para que las personas recién llegadas adquieran el euskera y la cultura vasca. Se fomentará la gratuidad para el aprendizaje del euskera, y se ofrecerá en euskera la oferta de tiempo libre infantil y juvenil. Se garantizará el derecho de la ciudadanía a relacionarse en euskera con la administración. Se impulsará el desarrollo de estrategias lingüísticas a nivel comarcal.

Fruituak 13

# INKLUSIORAKO BABES EGITURA SOZIALA INDARTZEKO BIDEAN

Herritarrak erdigunean jarriz, tolosar guztien bizi baldintza duinak bermatzeko ahalegina egingo dugu. Pertsonak komunitatean txertatzen laguntzeko neurriak indartuko ditugu, Tolosan dauden jatorri eta kultura desberdinen arteko topaguneak bultzatuz, besteak beste. Adinekoen trataera integrala landuko dugu, bakardadeari aurre egiteko estrategia garatuz eta zahartzaro aktiboa bultzatuz. Ongizate emozionalaren egoeraren diagnostikoa egin eta Osasun Mentalaren eta Suizidioaren Prebentziorako Programa sustatuko dugu.



Frutos 13

## HACIA EL FORTALECIMIENTO DE LA ESTRUCTURA SOCIAL DE PROTECCIÓN A LA INCLUSIÓN

Se intentará garantizar unas condiciones de vida dignas de todo/a tolosarra. Se reforzarán las medidas para favorecer la integración de las personas en la comunidad, impulsando, entre otros, puntos de encuentro entre personas de diferentes orígenes y culturas existentes en Tolosa. Se trabajará el tratamiento integral de las personas mayores, desarrollando una estrategia para hacer frente a la soledad e impulsando una vejez activa. Se realizará un diagnóstico sobre el estado de bienestar emocional, y se ejecutará el Programa de Prevención de Salud Mental y Suicidio.

Fruituak 14

# MUGIKORTASUN PARADIGMA ALDATZEKO BIDEAN

Oinezko, bizikleta eta garraio publikoari lehentasuna emango diegu, eta horrela izan dadin, elkarren arteko bizikidetza bermatzeko neurriak hartuko ditugu. Horretarako, ezinbestekoa da Mugikortasun Plana eguneratzea eta gizarteratzea. Bizikletentzako aparkaleku gehiago sortuko ditugu, eta garraio publikoaren aldeko apustuaren ildotik, autobus geltokiak optimizatu eta berrituko ditugu.







Frutos 14

# HACIA EL CAMBIO DE PARADIGMA DE LA MOVILIDAD

Se priorizará el/la peatón/a, la bicicleta y el transporte público, y se adoptarán medidas para garantizar la convivencia entre ellos. Para ello, es imprescindible actualizar y socializar el Plan de Movilidad. Se crearán más aparcamientos para bicicletas, y en el camino hacia nuestra apuesta a favor del transporte público, se optimizarán y renovarán las paradas de autobús.

Fruituak 15

# HEZKUNTZA BATERATU BATERAKO SAREA

Ikastetxeen arteko herri mailako elkarlana sustatzeko, Udal Hezkuntza Kontseilua eratuko dugu, eta haren eginkizunak zehaztu ere bai. Era berean, Tolosako herriaren unitate didaktikoak garatuko ditugu, haurrek gure herriaren inguruko ezagutza sakonagoa izan dezaten.








Frutos 15

# POR UNA EDUCACIÓN CONJUNTA

Se constituirá un Consejo Municipal de Educación para el fomento de la cooperación pública entre centros escolares, y se definirán sus funciones. Asimismo, se desarrollarán unidades didácticas del pueblo de Tolosa para que la población más joven tenga un conocimiento más profundo sobre nuestro pueblo.

Fruituak 16

# ERRONKA SOZIALEI AURRE EGITEKO, EKONOMIA ZIRKULARRA

Herriko saltoki txikiak, elikadura kate osoa eta bertako produktuen kontsumoa indartzera bideratutako kontsumo ereduak sustatuko ditugu, kontzientziazio kanpainen bidez ez ezik, baita antolatzen diren egitasmoetan ere.




Frutos 16

# HACIA UNA ECONOMÍA CIRCULAR QUE AFRONTE LOS RETOS SOCIALES

Se promoverán modelos de consumo que impulsen el pequeño comercio local, toda la cadena alimentaria y el consumo de productos locales, no sólo a través de campañas de concienciación, sino también en las iniciativas que se impulsen desde el consistorio.

# EHUN EKONOMIKOARI BABESA

Apatta industrialdeko bigarren fasea gauzatuko dugu. Oro har, bertan errotuta dauden eta ardura soziala duten enpresa proiektuak bultzatuko ditugu, eta esparru anitzeko lanpostu eta aukerak handitzeko eragin nahi dugu. Enpresen arteko sinergiak ere sakondu nahi ditugu, aukera berriak sortzeko. Ekintzailetzari eta autoenpleguari ere bultzada emango diogu.









# APOYANDO EL TEJIDO ECONÓMICO

Se llevará a cabo la segunda fase del polígono industrial Apatta. En general, se impulsarán proyectos empresariales con arraigo y responsabilidad social en el territorio, y se pretende incidir en el aumento de puestos de trabajo y oportunidades polivalentes. También se pretende profundizar en las sinergias entre empresas, para generar nuevas oportunidades. También se seguirá prestando apoyo para el emprendimiento y el autoempleo.

Fruituak 18

# LEHEN SEKTOREA ETA ELIKADURA, BERTATIK ABIATUTA

Eskualdeko Elikadura Mahaia osatuko dugu. Herrian, Tolosako lehen sektorea eta azoka indartzeko egitasmoei jarraipena emango diegu, belaunaldi berrietan azpimarra jarriz. Landa lur ez urbanizagarriak identifikatuko ditugu.




Frutos 18

# EL SECTOR PRIMARIO Y LA ALIMENTACIÓN, DESDE UN PUNTO DE VISTA LOCAL

Se constituirá la Mesa de Alimentación Comarcal. A nivel local, se dará continuidad a los proyectos para potenciar el sector primario y el mercado de Tolosa, poniendo el énfasis en las nuevas generaciones. Se identificarán los terrenos rústicos no urbanizables.

Fruituak 19

# MERKATARITZA, KONTSUMO OHITURETARA EGOKITZEKO BIDEAN

Erosketa eta mugikortasun sistemak modu bateratuan aztertu nahi ditugu, herriko saltokiak paradigma aldaketa horretan kokatzeko, eta kontsumo ohituretan eragiteko. Saltoki txikietan kontsumitzeko kontzientziazio kanpainei jarraipena emango diegu halaber, merkatariekin elkarlanean. Lokal hutsak erabilgarri jartzeko egitasmoak landuko ditugu.







Frutos 19

## ADAPTANDO EL COMERCIO A NUEVOS HÁBITOS DE CONSUMO

Se pretende analizar de forma conjunta los sistemas de compra y movilidad, para situar a los comercios locales en este cambio de hábitos de consumo. También se continuará con las campañas de concienciación para el consumo en el pequeño comercio, en colaboración con los comercios locales. Se elaborarán proyectos de puesta a disposición de locales vacíos.

Fruituak 20

# OSPITALE PUBLIKOA ERREALITATE IZAN DADIN

Gainerako eskualdeek bezala, Tolosaldeko beharretara egokituko den kalitatezko ospitale publiko bat izan dezagun, bere eskumenen barruan dagoen guztia egingo du Udalak, horretarako aukera guztiak aztertuz eta ahalbidetuz. Bitarte horretan, indarrean dagoen hitzarmena modu egokian betetzen dela ziurtatzeko, jarraipena gertu-gertutik egingo diogu.




Frutos 20

# PARA QUE EL HOSPITAL PÚBLICO SEA UNA REALIDAD

El ayuntamiento hará todo lo que esté dentro de sus competencias para que dispongamos, como el resto de comarcas, de un hospital público de calidad que se adapte a las necesidades de Tolosaldea, analizando y posibilitando todas las posibilidades para ello. Mientras tanto, se realizará un seguimiento estrecho para el adecuado cumplimiento del convenio vigente.

Fruituak 21

# TURISTEN AURREAN, GAREN BEZALAKOAK

Tolosaldea Garatzenekin elkarlanean, urte osora zabalduko den turismo jasangarri baten eredua sustatzeko lan egingo dugu. Gure herriko ondare ez materiala ezagutzera emateko egitasmoak landuko ditugu, euskaran eta euskal kulturan azpimarra berezia eginez.



Frutos 21

# MOSTRÁNDONOS TAL Y COMO SOMOS

En colaboración con Tolosaldea Garatzen se trabajará para promover un modelo de turismo sostenible que se extienda a todo el año. Se trabajarán proyectos para dar a conocer el patrimonio inmaterial de nuestra comarca, haciendo especial hincapié en el euskera y en la cultura vasca.

# MEMORIA OSOA, BIZIKIDETZAN SAKONTZEKO

Biktima mota guztiek erakunde maila guztien partetik aitortza jaso dezaten egingo dugu lan, eta memorian sakontzeko ariketak egingo ditugu, batik bat belaunaldi berriekin.










## UNA MEMORIA COMPLETA, PARA PROFUNDIZAR EN LA CONVIVENCIA

Se trabajará para que todo tipo de víctimas sean reconocidas por las instituciones de todos los niveles, y se realizarán ejercicios de profundización en la memoria, especialmente con las nuevas generaciones.

